KULTURA SAILA

6903

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 13koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duen Kultura sailburuaren 2008ko apirilaren 9ko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbateko orokorra aldatzen duena.

AURREKARIAK:

1.– Kultura sailburuaren 2008ko apirilaren 9ko Aginduak, ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duenak, bere 21.1 artikuluan diru-laguntza horien zenbateko orokorra miloi bat seiehun eta berrogei mila eurotan (1.640.000,00) finkatu zuen.

2.– Aipaturiko aginduaren lehenengo xedapen gehigarrian honako aukera hau aurreikusten zen:

«Agindu honetan zehazten diren modalitateen zuzkiduren kopuruak igo daitezke, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatutakoan aurrekontuan agortu gabe gera daitezkeen diru-baliabideen arabera; diru-laguntzei buruzko erabakia hartu aurretik egin beharko da hori.»

3.– 2008ko azaroaren 12an Kultura Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko lankidetza-hitzarmen bat sinatu zen, gaztelania ez beste hizkuntza ofizial batean sortutako industria zinematografiko eta ikus-entzunezkoaren ekoizpena, banaketa eta sustapena bultzatzeko. Hitzarmenaren bitartez, Estatuaren 2008rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 51/2007 Legean helburu horrekin ezarritako diru-laguntzari aplikagarriak zaizkion baldintza eta konpromisoak ezartzeko kolaborazioa bideratu zen. Izan ere, 51/2007 Legean honako partida hau aurreikusi zen: «Gaztelania ez beste hizkuntza ofizial batean sortutako industria zinematografiko eta ikus-entzunezkoaren ekoizpena, banaketa eta sustapena bultzatzeari begira, hitzarmen bidez autonomia-erkidegoetako erakunde eskudunei eskualdatzeko laguntza edo kredituak ezartzea».

4.– Une honetan, diru-laguntzen deia egiten duen aginduaren xedapen gehigarrian aurreikusten den moduan, aurrekontu-disponibilitatea dago, hitzarmenean sorburua duena.

Ondorioz, hauxe,

DEPARTAMENTO DE CULTURA

6903

RESOLUCIÓN de 13 de noviembre de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 9 de abril de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca la concesión de ayudas a la creación, desarrollo y producción audiovisual.

ANTECEDENTES:

1.– La Orden de 9 de abril de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca la concesión de ayudas a la creación, desarrollo y producción audiovisual, en su artículo 21.1 fijaba la dotación total de dichas ayudas para la modalidad de ayudas a la producción en la cantidad de un millón seiscientos cuarenta mil euros (1.640.000,00).

2.– En la Disposición Adicional de la citada Orden se preveía la siguiente posibilidad:

«Los importes correspondientes a las dotaciones de las distintas modalidades de ayuda que se determinan en la presente Orden podrán ser incrementados, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Cultura, y con carácter previo a la resolución de las mismas.»

3.– Con fecha 12 de noviembre de 2008 se firmó el convenio de colaboración entre el Ministerio de Cultura y el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco para fomentar la producción, distribución y promoción de de la industria cinematográfica y audiovisual en lengua cooficial distinta al castellano. Mediante el citado convenio se canaliza la colaboración entre ambas instituciones para establecer las condiciones y compromisos aplicables a la subvención establecida para tal fin en la Ley 51/2007, de 26 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2008, que prevé una partida denominada «Para el establecimiento de ayudas o créditos a transferir mediante Convenios a los Organismos competentes de las Comunidades Autónomas, con lengua propia distinta del castellano, a fin de fomentar la producción, distribución y promoción de la industria cinematográfica y audiovisual en las lenguas cooficiales».

4.– Dado que existe en este momento disponibilidad presupuestaria en los términos previstos en la Disposición Adicional de la Orden de convocatoria de las ayudas derivada del citado convenio.

Por todo ello,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ikus-entzunezkoen arloan sorrera, garapen eta produkzioaren aldeko laguntzak ematen duen Kultura sailburuaren 2008ko apirilaren 9ko Aginduan finkatzen den gehienezko zenbatekoa 124.000,00 eurotan gehitzea. Gehikuntza hori produkziorako laguntzen modalitatera eta jatorrizko bertsioa euskaraz duten proiektuetara bideratuko da oso-osorik.

Beraz, aipaturiko aginduaren 21.1 artikuluan aurreikusitako diru-kopurua miloi bat zazpiehun eta hirurogeita lau mila eurotan (1.764.000,00)finkatzen da.

Bigarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura sailburuari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen honek, ematen denetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 13a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

RESUELVO:

Primero.– Incrementar en 124.000,00 euros el importe global máximo destinado en la Orden de 9 de abril de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se convoca la concesión de ayudas a la creación, desarrollo y producción audiovisual. Dicho incremento irá en su totalidad a la modalidad de ayudas a la producción y para proyectos cuya versión original sea en euskera.

Por tanto, la cantidad global máxima prevista en el artículo 21.1 de la Orden de convocatoria para la modalidad de producción, queda fijada en 1.764.000,00 euros.

Segundo.– Publicar la presente Resolución en el BOPV.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV ante la Consejera de Cultura.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos desde su adopción.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de noviembre de 2008.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.